

## Hitzaurrea

---

Jakina denez, Eskola kirolaren antolaketak trantsizio eta egokitze garaia bizi du gure artean. Gizartearen ohiturak, bizimoduak eta lehentasunak aldatuz doazen heinean, herritarren beharrei erantzuteko sortu izan diren egiturak ere moldatu beharrean aurkitzen dira.

Hego Euskal Herriko lurralde bakoitzak eskola-kirola antolatzerakoan bere egitura propioa izan du orain arte eta honek hainbat arazo, konparaketa eta eztabaida sortu izan ditu. Azkenaldian ordea, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko administrazio desberdinetako ordezkariak eredu bateratuaren aldeko apustua egiten ari dira, baina zailtasun ugari azaldu dira bide hau urratzen hasi direnean.

Gure haurrek kirol jarduerekin nolako hastapen, sarbide edo hasierako harremana izan behar duten finkatzerakoan, galdera ugari mahairatzen zaizkigu, gai hau zein neurritan den korapilatsua nabarmen geratzen delarik. Hona hemen galdera sorta bat:

- Zein xederi eskaini behar diogu lehentasuna: gaitasun apartako gutxi bazuk goimailarako trebatzeari?, ala hiritar guztiengan etorkizunerako bizi-estilo osasuntsuak sustatzeari?
- Posible al da arestiko bi helburu horiek uztartuko dituen eredurik sortzea?
- Kirol jardueren bidez, beti lantzen al dira giza balio positiboak?
- Hautzaroko kirolaren eragin hezitzailea bermatzeko, ezinbestekoa al da eskolen esku-hartzea arautzea?
- Kirol errendimenduzko kalitatea lortzeko nolako protagonismoa izan behar dute kirol elkarteek?
- Nolako inplikazioa izan beharko lukete udalek onura sozial zuzeneko jarduera hauetan?
- Boluntarioen krisialdi gorri honetan nola lortu prestakuntza egokia duten hainbeste giza baliabide?
- Prest al gaude egoera berri honek eskatzen dizkigun aurrekontu eta diru beharrei behar bezala aurre egiteko?
- Kirola egiten duen haurrari zuzenean dirua eskatzeak nolako eragina izan lezake partehartzearen mailari dagokionez?
- Zein neurritaraino da zilegi guraso batek bere semearekiko dituen asmoak administrazioak arautzea?

Eztabaida honen harira argitasun pixka bat eman eta argudiatutako ekarpen zientifikoak eta objektiboak egite aldera, (grinak baztertuta, beti ere), gaiaren garrantziak eskatzen duen patxadaz, Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza Sailean jardunaldi batzuk antolatzea erabaki genuen. Donostiako Miramar Jauregian 2006ko maiatzaren 26an eta 27an jardunaldi horietan elkartu ziren teknikari eta adituek egin zituzten proposamenak eta lanak bildu ditugu argitalpen honetan.

Garbi izan behar dugu azaldutako eskola kirolaren eredu hau finkatzerakoan interes eta ikuspegi ugari elkartzen direla, eta ondorioz, ez dela batere erraza ados jarri eta denen gustuko egitasmoak erabakitzea.

Lan honetan ez dugu arazoari aurre egiteko behin betiko errezeta magikorik ematen, ez dugu azken ebazpenik zehazten; baina gaiarekin interesa duen edonork argibide ugari aurkituko duelakoan gaude. Lan hauetan, mediku, entrenatzaile, prestatzaile fisiko, jarduera fisikoko lizentziatu, psikologo, hezitzaile, ikerlari, guraso elkarteko partaide, hezkuntzako ordezkari eta hainbat eremuetako adituen gogoetak eta azterketak bildu ditugu. Zenbait kasutan osagarriak dira, beste zenbaitetan, baita kontrajarriak ere, baina beti irizpide zientifikoak eskatzen duen objektibotasunean oinarrituz, ekarpen aberasgarriak planteatzen saiatu gara.

Gure gazteen osasunak eta heziketak, gure kirolarien mailak eta azken batean, gure biharko hiritarren bizi-kalitateak hainbeste eta gehiago merezi dutela uste dugu. Baina gogoratu irakurle: azken hitza, zure esku.

Lehendabiziko atalean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako ikuspegiak bildu ditugu. Iñaki Ugarteburu Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak lurralde honetan eskola-kirolak izan duen garapenez eta antolaketaz hitz egiten du. Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenen berri Iñaki Mugikak ematen digu; udal-eskolak sortzeko asmoaz eta herri-kirolek eta pilotak kirol estrategiko modura duten garrantziaz mintzatzen da. Luis M. Sautuk azpimarratzen du kirolak dibertsifikatzeko aurkitzen diren oztopoak, eta arazo hori saihesteko eta ezezagunagoak diren kirolak sustatzeko Arabako Diputazioak bultzatzen dituen ekimenak azaltzen ditu.

Hurrengo atalean gaztetxoaren osasunaren ikuspegitik heltzen zaio kirolaren gaiari. Irazustak eta Hoyosek gorputzaren organoetan eta atal ezberdinetan kirola egiteak dituen onurak azpimarratzen dituzte. Gilek, aldiz, kirolaren arriskueta jartzen du arreta eta prebentzioaren garrantzia aldarrikatzen du. Iturriagak eta Sagastumek aurkezten duten lanean eskola adineko haurrentzat zuzendutako entrenamendu osasuntsuak izan beharreko ezaugarriak azaltzen dituzte. Haur pilotazaleen eskuak babeste aldera, Lizarragak, berak burututako ikerketan oinarrituz, adin bakoitzerako pilotak izan beharreko ezaugarriei buruz (pisua eta neurria) orientabideak azaltzen ditu.

Eskola kirolaren izaera hezitzaileari eskaintzen diogu hirugarren atala. Ortzarrek, eskola-ordutegiz kanpoko gainontzeko jarduerentzat bezalaxe, eskola kirolarentzat ere Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan txertatzearen beharra alda-

rrikatzen du. Bizkarrak, haur hauengan kirol jardueri esker trebetasun sozialak garatu ahal izateko, monitoreak prestatzearen garrantzia azpimarratzen du. Arribas eta Arruzak eragin hezitzailea bermatzeko psikologiaren eremutik egin daitezkeen ekarpenetan sakontzen dituzte, bereziki motibazio giroari lotuta. Zulaikak, egunerokotasuna kontuan harturik, kirol jarduerak beti onura horiek eragiten ote dituen zalantzan jartzen du. Ikuspegi hezitzailearekin bat ez datozen hainbat ezaugarri mahai gainean ipintzen ditu.

Laugarren atalean euskal joko eta jolasen testuekin osatutako bilduma dugu. Etxebestek Euskal Curriculumean gure kultur ondarearen osagai gisa euskal joko, jolas eta kirolek izan beharreko presentzia bere gogoetak azaltzen dizkigu. Egibarek argudiatzen digunez, Euskal Kirolak Euskal Herriaren testuinguruan egituratuz gero, bere esparrutik lagundu dezake euskal kultura indartzen. Gure kirolik zabalduenaren ordezkari gisa datorkigu Usabiaga (pilota), tradizionalki lehiaketara mugatu den eremu batetik (kirol federazioak), parte hartzea, aisialdia, hezkidetzak, gutxitu fisikoaren onespina, euskara eta hainbat balio nola bultzatzea daitezkeen azaltzen digu.

Bosgarren atalean goimailarekin lotutako kirol jarduerak aztertzen dira. Maldonadok eta Callejak errendimendu handira iritsi ahal izateko adin hauetan saskibaloian entrenatzeko moduaren inguruan hainbat orientabide aurkezten dituzte. Pinedok Bilboko Athletic taldeak beheko mailetan eta harrobiko egituretan lan egiteko dituen ildoen inguruan hainbat argibide aurkezten ditu. Haur futbolariaren egungo entrenamenduak iparra galdu duela salatzen du Toralek, desnaturalizatu egin dela. Haurraren garapen psikoafektiboarekin bat datorren entrenamendurako orientabideak azaltzen ditu.

Azken atalean zehar-lerro eta gaurkototasuna duten hainbat gai jorratzen dira. Gonzalezek neska nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko neurriak proposatzen dizkigu. Kirolak haurren osotasunezko prestakuntzan eragin positiboa izan dezan, gurasoek izan beharreko jokabideaz aritzen zaigu Gimeno. Aspaldian goimailako kirolak hartutako norabide kezkatiaz ohartarazten gaitu Gonzalez Aramendik eta kirolak tradizioz izan dituen balio etikoak berreskuratzearen beharraz. Amaitzeko, Ana Makazagak Kirolaren Euskal Eredua aztertu eta gero arazo aipagarrienak nabarmentzen ditu, baita irtenbideak proposatu ere.

Ale honen koordinatzaileak:  
Luis M<sup>a</sup> Zulaika, Beatriz Garai, Clara Urdangarin eta Julen Idarreta